

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ZARAUZKO UDALA

Gipuzkoa kalea 48ko udal aparkalekuetan jabari publikoko aparkaleku-partzelen emakiden deialdia egin eta baldintzen agiria onartzea.

Gipuzkoa kalea 48 eraikineko (Eguneko Zentroa eta Babespeko Apartamentuak) sotoko solairuan udal jabariko aparkaleku plazak daude. Horien erabilera behin-behineko izaeraz baimendu izan du Udalak.

Zarauzko udalerriko mugikortasunerako beharrezkoa da udal-baliabideak ahalik eta ondoen kudeatzea; helburua da interes orokorrari erantzutea, herritarren beharrak beteko dituzten irizpide objektiboen arabera. Testuinguru horretan, baliabideak aztertu eta irizpide arrazionalak ezarri behar dira Zarauzko udal-erriak dituen aparkaleku-plazak emakidan adjudikatzeko orduan.

Hori dela eta, mugikortasun-irizpideetan oinarritutako proposamen teknikoak kontuan hartuta, beharrezkotzat jo da Udalak dituen baliabideak herritarren esku jartzea eta aparkalekuen erabilera emakida administratibo bitartez ematea. Horretarako prozedura eta esleipenak arautuko dituen arauak landu dira.

Idazkaritzako eta Mugikortasuneko departamentuek espedienteari buruzko txostena egin dute.

Espedientea aztertuta eta arloko zinegotziaren proposamena ikusita,

ERABAKITZEN DUT

Lehena. Gipuzkoa kalea 48 eraikineko sotoko solairuko 45 aparkalekuen erabilera emakida administratibo bitartez esleitzeko prozedura arautuko duen Baldintzen Agiria onartzea.

Bigarrena. Dagokion deialdi publikoa egin eta argitaratzea Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta tokiko prentsan.

Hirugarrena. Prozedura eta esleipenak arautuko dituzten arauak Zarauzko Udaleko web orrialdean argitaratzea (www.zarautz.eus), kontratatzailearen profilean.

Ebazpen honen aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, edo zuzenean aurka egin ahal izango da Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian bi hilabeteko epean, egokituz jotzen den beste edozein errekurtsoen kalterik gabe.

Zarauz, 2025eko ekainaren 25a.—Alkatea. (4880)

AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ

Convocatoria para la concesión de plazas de aparcamiento de dominio público en Gipuzkoa kalea 48 y aprobación de los pliegos de condiciones.

En el sótano del edificio sito en Gipuzkoa kalea 48 (Centro de Día y Apartamentos Tutelados) hay plazas de aparcamiento de dominio público cuyo uso ha autorizado el Ayuntamiento con carácter provisional.

La movilidad en el municipio de Zarautz requiere una gestión óptima de los recursos municipales con el objeto de servir al interés general bajo criterios objetivos que cubran las necesidades de los ciudadanos. En ese contexto, es preciso analizar los recursos e implantar unos criterios racionales a la hora de adjudicar en concesión las plazas de aparcamiento de las que dispone el municipio de Zarautz.

Así, y sobre la base de las propuestas técnicas basadas en criterios de movilidad, se ha estimado oportuno poner recursos municipales a disposición de la ciudadanía y conceder el uso de los aparcamientos mediante concesión administrativa. Con dicho objeto se han desarrollado las normas que regularán el procedimiento y las adjudicaciones.

El expediente ha sido informado por técnicos de Secretaría y del Departamento de Movilidad.

Visto el expediente y a propuesta del concejal del área,

RESUELVO

Primero. Aprobar el Pliego de Condiciones para regular el procedimiento de adjudicación mediante concesión administrativa del uso de 45 plazas de aparcamiento en Gipuzkoa kalea 48.

Segundo. Realizar la correspondiente convocatoria y publicarla en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en los medios de prensa locales.

Tercero. Publicar las normas que regularán el procedimiento y las adjudicaciones en el perfil del contratante de la página web del Ayuntamiento de Zarautz (www.zarautz.eus).

Contra la presente Resolución podrá interponerse potestativamente recurso de reposición en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la fecha de su publicación, o bien impugnarse directamente ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses, todo ello con independencia de cualquier otro que se estime oportuno.

Zarauz, a 25 de junio de 2025.—El alcalde. (4880)